



PRENTSA-OHARRA

Udalak diru-laguntzak deitu ditu kirol-emanaldi eta -ikuskizunak eta kirol zein ariketa fisikoko bestelako jarduerak antolatzeko

617.000 euro banatuko dira kirolaren zein ariketa fisikoaren arloko irabazi asmorik gabeko entitateen artean

2017-2018ko denboraldian (irailetik ekainera) zein 2018. urtean kirol-emanaldi eta -ikuskizunak eta bestelako kirol-jarduerak antolatzen dituzten kirol zein ariketa fisiko arloko entitateei zuzendutako diru-laguntzak deitu ditu Iruñeko Udalak, xede hartuta kirol-emanaldien eta -ikuskizunen antolamendua sustatu eta erraztea hirian. Deialdiaren diru-zuzkidura 617.000 euroan mantendu da, eta eskaerak aurkezteko mugaeguna maiatzaren 4a da, ostiralarekin. Deialdiaren iragarkia kontsultagai dago 64. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2018ko apirilaren 4koan.

Aurkeztu nahi diren entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: legearekin bat eraturik eta dagokien erregistroan izena emanda egotea, irabazi-asmorik gabekoak izatea, estatutuetan jasota edukitzea kirol zein ariketa fisikoaren arloko jarduerak egitea, Iruñean izatea zergetarako helbidea eta egoitza, eta egunean edukitzea Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko tributu-betebeharrak. Entitate bakoitzak 4 proiektu aurkezten ahalko ditu gehienez ere, eta horiek zenbait baldintza orokor bete beharko dituzte: herritar orori irekiak izatea; jarduerak Iruñeko udal-mugartean gauzatzea, oro har, eta 2017-2018ko denboraldian (irailetik ekainera) edo 2018. urtean zehar; eta diru-laguntzaren xede den jarduerak diru-laguntzarik ez jasotzea Iruñeko Udalaren beste deialdi publiko, kontratu edo hitzarmenen bidez.

Berriazko betekizunak ere ezarri dira: jarduera denboraldi oso bat irauten duten kirol-liga bat baldin bada, hori ezingo da kirol-federazioen babespean egin, eta adinez nagusiek ezingo dute parte hartu; denboraldi oso bat (gutxienez 8 hilabete) irauten duten ariketa fisikoko programetako jarduerak badira, herritar guztiei zabalik egon beharko dute, baldintza berberetan, eta ordaindu beharreko kuota ezin izango da 120 euro baino gehiagokoa izan; eta kirol-klub bati lotutako fundazio pribatuek aurkezten dituzten proiektuek xede izan beharko dituzte oinarritzko kirolaren sustapena, koordinazioa eta garapena, klubeko lehen taldea zein modalitatetan aritu eta horrena.





Balorazio-irizpideak eta lehentasunak

Aurkeztutako jardueren gaineko balorazio-irizpideak eta emango den diru-laguntzaren zenbatekoa deialdiaren oinarrietan islatutako lehentasun-irizpideekin bat ezarriko dira. 1. lehentasunak Udalarentzat interesekoak diren kirol zein ariketa fisikoko jarduerak barne hartzen ditu; 2. lehentasunak Udalarentzat interesekoak izan ez baina maila goren absolutukoak diren jarduerak aintzat hartzen ditu; 3. lehentasunak Udalaren interes berezikoak izan gabe gutxienez beste irizpide hauetakoren bat betetzen dituzten jarduerak aipatzen ditu: nazioko maila gorenkoa izatea, nazioartekoa eta junior edo gazte kategoriakoa izatea, Iruñean ospatzen den maila gorenko proba izatea, proba herrikoa denez gero maila guztietako kirolariek izena emateko aukera edukitzea, eta proba Iruñeko Udalak sustatua izatea; eta azkenik, 4. lehentasunak barne hartzen ditu parte-hartzaileen artean nazioko maila gorenetik beherako mailetako kirolariak dituzten jarduerak. Diru-laguntzaren zenbatekoa handiagoa izango da proiektuan genero-ikuspegia txertatzen bada.

Emango den diru-laguntzak ezingo du gainditu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren defizitaren % 100. Edonola ere, zenbait muga ezarriko dira: fundazio pribatuen kasuan, 180.000 euro, guztira eta guztien batura eginda; 135.000 euro, ariketa fisikoaren irakaskuntza-programetarako; 20.000 euro, Iruñeak beste udalerriekin dituen senidetze-harremanen ondorioz egiten diren jardueretarako; 24.000 euro, denboraldi oso bat irauten duten kirol-ligetarako; 40.000 euro, 2. lehentasunean jasotako jardueretarako; 20.000 euro, 3. lehentasunean jasotako jardueretarako; eta 6.000 euro, 4. lehentasunean jasotako jardueretarako.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira kirol-jardueren antolatzaileendako ordainsariak eta haborokinak; kirolari, teknikari edo zuzendaritzakoen dietak; joan-etorriak, ostatu-hartzeak eta mantenuak; kanonen, federazio-kuoten, arbitratze-lanen eta abarren ordainketa, azpiegiturak eta antolamendua; instalazioen alokairua, mantentze-lanak eta abarrak; eta behar bezala arrazoitutako eta banakaturiko beste gastu batzuk.

Iruñean, 2018ko apirilaren 11n

